

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
HEDABIDEEN AZPIBATZORDEA**

Batzarraren AKTA.

2017ko martxoaren 9a – 9:30 h

BERTARATUAK

Bilboko Udala

Inés Ibáñez de Maeztu (Hedabideen Azpibatzerdeko presidentea)
Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)
Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)
Izaskun Llona (Komunikazio arduraduna)

Hedabideak

Berria. Gotzon Hermosilla
Berton, *Prest* eta *Uriola*. Lur Mallea
Bilbo Hiria Irratia. Ane Zabala
Bizkaia Irratia. Libe Agirre eta Javier Onaindia
Cope Bilbao. José Luis Martín
El Correo. Martín Ibarrola
EITB Irratia. Urko Aristi
Europa Press. Aritz Markaida Bilbao
Hamaika Telebista. Beñat Zarrabeitia
Onda Cero Bilbao. Irune Elorriaga
Periódico Bilbao. Naiara Baza
Radio Popular de Bilbao. Ramón Bustamante

Ezin etorria aurretik adierazi dute

Berton. Iker Martínez de Lagos
Deia. Enrique Santaren eta Iñaki González
Euskadi Irratia. Iñaki Guridi eta Itsaso Martín
Gara. Agustín Goikoetxea
Onda Vasca. Gotzon Muneta
Radio Bilbao - Cadena Ser. Begoña Marañon Unanue
Radio Euskadi. Idoia Jauregi
Radio Nacional de España Bilbao. Jon Kepa Idoyaga
Telebilbao y Radio Nervión. Enrique Campos

Idazkaritza teknikoa

Bilbao Metropoli-30. Idoia Postigo

Labayru Fundazioa. Lander Solozabal

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2017-01-18) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu da** aho batez.

2.- LEHENENGO BILERAREN ONDORIOEN LABURPENA.

Labayru Fundazioko Lander Solozabalek azaldu du, etorkizunerako bisioa lortzeko, **hauek izango direla Hedabideen azpiatzordearen lana gidatuko duten ardatzak:**

- **Normalizazioa**: posibleagoa, arlo guztietan, erreferenteekin, presentzia, bizia, babesa...
- **Nazioartekoa**: globalizazioa, digitalizazioa, teknologia, modernitatea, aniztasuna, aberastasuna...
- **Tradizioa (iragana) eta etorkizuna**: ohiturak, erroak, nortasuna...
- **Pertsona ardatz**: gizakiok erdigunean, talde lana, ahaleginak...
- **Hedabideetan**: espezializazioa, sorkuntza, erreferenteak, presentzia,...

3.- HELBURUEN PROPOSAMENA

Ondoren, bakarkako eta taldeko dinamika bat egin dugu helburuen eta ekintza zehatzen zerrenda bat osatzeko, aurretik definitutako bisioa lortzeko bidean aurrerapausoak emate aldera. Behin adostuta, parte-hartzaileek lehenetasunaren arabera sailkatu dituzte ekintzok, eta honako hau da horren emaitza:

- Hedabideak sustatu: dirua, baliabideak... (11)
- Hedabideen euskara-ekosistema indartu (9)
- Euskararen eta euskaldunon gida sortu (establezimenduak, zerbitzuak...) (9)
- Solaskide euskaldunak ezagutarazi (9)
- Erakundeen publizitatea baliatu prestigioa lortzeko (6)
- Informazio-iturriak euskaraz lehenetsi (5)
- Hedabideen kolaboraziorako sarea sortu (5)
- Hedabideetan euskararen kuota kualitatibo eta kuantitatiboak aztertu eta inplementatu (4)
- Euskararen eta euskaldunon errealitatea adierazi (hiztunen euskarak) (3)

- Erreferente euskaldunak zabaldu (3)
- Erabiltzen ditugun lehenengo hitzak euskaraz izan daitezen lan egin (3)
- Euskararen agenda urbanoa sortu (2)
- Euskaraz hitz egiteko ikurrak sortu eta zabaldu (1)
- Azpiegitura eta eraikin publikoetan baldintzak ezarri euskara bermatzeko (1)
- Euskararen aldeko agenteen koordinatu, babestu, goraiatu... (1)
- Euskararen erabilera sustatu eskolatik kanpo ere (bertsolariak, ekimenak, hedabideetara bisitak...) (1)
- Sentsibilizazio kanpainak antolatu
- Euskaldunen sarea sortu
- Euskara bera hitz egiteko gaia izan dadin lan egin
- Euskararen presentzia edo erabilera neurtu
- Hedabideak eta euskara Bilboko kulturaren arloan txertatu

Proposamen hau Aholku Batzorde Orokorrari aurkeztuko zaio, aztertu dezan eta beharrezkoak diren ekarpenak egin ditzan. Eraitza hori hartuta, azpibatzaordeen hurrengo bilerak deituko ditugu Aste Santuko oporren ostean.

Bilbon, 2017ko martxoaren 9an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA